

## Transizioaren meloi ustela

Jendea, orokorrean, erraz moldatu zen egoera berrira. Franko hilda, taula berrian libreki jolastea bagenuela zirudien azkenik. Ez al zen hau demokrazia, ala? Edonor bihur daiteke aberats behar bezain azkarra izan ez gero. Kontuz ordea, ez ezazue nahastu: "edonor" ez da guztiok. Burbuilak bata bestearen jarraian pasatzen ziren eta heuren barnean ez geunden hain gaizki. Hipotekaturiko pisuaren balioa gora zihoan etengabe. Egia da, betikoek irabazten zuten, baina mahai gainean apur batzuk geratzen zitzaizkigun. Hala ere, asko izan ziren unibertsaltasunean patua zuen Espainia zen marka berri hontara moldatu ez zirenak. Pepe Martinez adibidez, herbesteratua eta Ruedo Iberiko editorialaren promotorea zena, nork bere itzuleran burua labe barnean sartu zuen ito arte. Gertatutako aldaketa ezin izan zuela ulertu zioten aldizkarietan. Heroinak akatu zituen beste batzuk. Beste batzuk heriotza barneratu behar izan zuten bizitzak leher egin ez ezan. Beste batzuk, heuren lan postuetan atzerritarrak balira bezela bizi izan ziren soilik. Historia beste bat izan ahal zela jakin izanagatik anomalia hutsak ginen. Bizitzeko *beste* modu bat bazela ikus izan ez bagenu bezela bizitzea zaila

zitzaigun. Inozoak, ameslariak. Ez al dakizue ez dagoela beste aukerarik dagoen indar koerlazioa egonda? – zioen langile erreformismoak. Kapitalaren erreformismoak ordea argi zeukan aldaketak egiteko beharra: "*Bazterketarik gabeko demokrazia baten beharra dugu, baztertuek egoera blokeatzeko indarra bait daukate*" Pedro Durán Farrell (Gas Natural-eko presidentea). J. M<sup>a</sup> de Areilza, Arias Navarrokekin ministro izan zena, are eta argiago mintzatu zen: "*(Zerbait egin behar dugu), eskuineko indarren estatu kolperantz edota guztiarekin amaituko duen marea iraultzailerantz bait goaz*".

Kapitalaren erreformismoa eta langile erreformismoa, katedralean ezkondu ziren biak benetan agintzen zutenek bedeinkaturik. Monarkia izan zen transakzio honen gakoa. Baliteke langileei hau ongi etorri izana. Klase sindikatuak eta ezkerreko partiduak lan-indarraren prezioa negoziatzeko tresna hutsak izatera pasa ziren. Langile-klaseak barne presio talde bat izatea onartu zuen, bere interes propioak defendatzen dituen lobby bat, eta bere antagonismoa garapenerako motore izateari utzi zionean desartikulatua izan zen. Transizio posfrankistaren istorioa oso sinplea da: langile borrokak bultzaturik, kapitalak behar eta beldurtzen zuen

erreforma inposatu zion bere buruari. Diktadura "demokrazia" bilakatu zen eta hiritarrok makineria berriaren pieza. Gauzak horrela pasa izan ziren kapitalaren eromenak berak guk inoiz imaginatu ahal izan ez genuen kritika gauzatu zuen arte. *Solidoa zen guztia airean deusezten hasi zen orduan*. Partidu sistema arkakusoz beteriko txakur abandonatua bilakatu zen. Monarkia, bere gezur endogamikoek itsas zabalean hondoratzeaz utzi duten galduriko yatea. Dirurik ez zuten bankuak kaka jariotzen hasi ziren. Eta Urdangarinek botatako pilota meloi bilakatu zen. Politikari abertzale batek zioen lehengoan monarkiaren debatearen meloia irekitzeko asmorik ez zuela. Arrazoi guztia zuen. Ezin da bere barnean politikari zikinak, enpresarik maula egileak, polizia torturatzailerak eta zaunka egiten duten tertulianoak gordetzen dituen ustelduriko meloia ireki. Ezin dugu onera ekarri, zaborrera bota behar dugu. Horrela hasi daiteke koiuntura berri bat. Oraingo honetan ez daukagu gurea den ezer: ez zeru-ertzik, ez sujetu politikori... libreak gara. Anonimotasunaren indarrean oinarriturik sortzeko libreak. Eta zelatan ginenok, nahiz eta eguneroko bizitzan iltzatzen zaizkigun dramak jasan izan, zorion handi bat sentitzen dugu *mundu bat hondoratzen dela* egiaztatzen dugunean.